

Lehen Hezkuntzako
2. eta 3. zikloa

AISIALDIA ETA TEKNOLOGIA




HELBURUAK:

- Zenbait aparatu elektronikoen fabrikatze prozesuetan sortzen diren ingurumen arazoez eta arazo sozialez jabetzea.
- Gaur egungo haurren aisialdiak teknologiarekiko duen menpekotasunaz hausnarketa egitea.

LANDUTAKO GAITASUNAK:

- Hizkuntza-komunikazioa
- Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabili
- Gizartea eta herritartasuna
- Norberaren autonomia eta ekimena



Azken urteotan denok ikusi dugu teknologia nola sartu den haurren aisialdi esparruan: jolas-makinak, tabletak, ordenagailua, mugikorrak, eta abar.

Gure iritziz, **aparatu elektriko hauen erabileraren atzean dagoen arazoaz eta arriskuaz hausnarketa egitea ezinbestekoa da, jolas tradizionalaren balioak azpimarratuz eta onurak gogoraraziz.**



JARDUERAREN GARAPENA:



Ariketa *Llamada de atención* bideoa ikusiz hasiko dugu.

<https://www.youtube.com/watch?v=Qy79mhJIIn0>

Bideoa ikusi ondoren, **galdetegiari** ekingo diogu:

- Elektrotresna hauek guregana iritsi arte zenbait pauso jarraitzen dituzte: bizitza zikloa. Bideoan ikusi duzuenari jarraituz ipini ordenean ondorengo laukitxoak:

Material berezi hauen ustiaketak zenbait arazo sortzen dituzte. Bideoan zeintzuk ikusten dira?

Bideoan mugikorra fabrikatzen ari direnean, langileen giroa gustatu zaizu? Zuri horrela lan egitea gustatuko litzaizuke?

Eztabaidatu denon artean zer den haien ustez bideoan aipatzen den "obsolescencia programada" terminoa.

Jarraian, **hausnarketa bultzatzeko galdetegia** egingo dugu:

- 1. Baduzue mota honetako gailurik?**
- 2. Azken generaziokoak dira?**
- 3. Noizbait deuseztatu izan duzue horrelako gailurik? Hondatuak zeuden ala teknologikoki zaharkituak?**
- 4. Posible/beharrezkoa da beti azken generazioko mugikor edo jolas-makinak izatea?**
- 5. Bakarrik jolasean aritzeko...**
 - Zein jolas mota aukeratzen duzue?
 - Teknologiarik gabeko zein jolas duzue gustuko?
 - Maiz jolasten duzue bakarrik?
- 6. Lagunartean aritzeko...**
 - Zein jolas mota aukeratzen duzue?
 - Beharrezkoa ikusten al duzue teknologia lagunartean ondo pasatzeko?
 - Teknologiarenean beharrik ez duten lagunarteko gustuko jolasak zerrendatu.
 - Horrelako momentuak maiz izaten dituzue?

Galdetegia bakarka edo binaka bete ondoren, talde handian bateratu guztion iritziak jasotzeko.